

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuak aurrera egin dezan, funtsezkoa da kostuen egitura argi eta zehatz definitzea, enpresaren bideragarritasuna eta eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea batera bermatzeko. Kostuak ez ditugu soilik gastu gisa ulertzen, baizik eta gure bezeroei eskaintzen diogun balioa handitzeko eta etorkizuneko garapena sendotzeko egiten diren benetako inbertsio gisa. Gure proiektu inklusiboak arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da gastuen egitura argi eta zehatza izatea. Kostuak bi multzo nagusitan banatzen dira: kostu finkoak (enpresaren eguneroko funtzionamendurako beharrezkoak) eta kostu aldakorak (zerbitzuen eskaeraren arabera aldatzen direnak). Helburua da gastu guztiak identifikatzea eta jasagarritasun ekonomikoa bermatzea, gure balio-proposamena mantenduz.

Goazen orain gure kostu finkoen eta aldakorren zerrenda egitera:

1. Kostu Finkoak

Hauek dira gure enpresak hilero edo urtero ordaindu beharko dituen gastuak, salmenta-bolumenaren arabera ez direnak aldatzen hain zuzen ere:

- Lanerako espazioa (Coworking)
ElkarCoworking gunea erabiltzea: 150 €/hilean → 1.800 €/urtean.
Espazio honek gure bilerak, prestakuntzak eta aholkularitza saioak egiteko aukera emango digu.
- Webgunea, aplikazioa eta haien mantenimendua
Diseinua, garapena eta mantentze-lanak: 1.000 € urtean.
Webgune inklusiboa gure komunikazio-kanal nagusia izango da, irisgarritasun estandarrak betez.
- Marka eta erregistroak
Logotipoa sortzea eta OEPM erregistroa: 300 €.
Gure identitate korporatiboa babestea funtsezkoa da.
- Komunikazio eta marketina
Sare sozialak, publizitatea, newsletterak eta tokiko hedabideetan presentzia: 600 €/urtean.
Helburua gure proiektuaren ikusgarritasuna handitzea eta bezero berriak erakartzea.
- Administrazio eta gestoria
Kontabilitatea, legezko tramiteak eta aholkularitza fiskala: 900 €/urtean.

2. Kostu Aldakorak

Hauek salmenta eta jardueren arabera aldatzen dira, hau da, zenbat eta zerbitzu gehiago eskaini, orduan eta gastu handiagoa izango dugu:



- Prestakuntza eta tailerrak
Hizlariak eta adituak kontratatzea:
 - 50 € saio bakoitzeko (20 saio → 1.000 €).
- Material osagarriak
Tailerretarako koaderniloak, kartelak eta baliabide gehigarriak: 300 €.
- Desplazamenduak
Ikastetxe eta enpresetara joateko gastuak: 1000 €

Kostu Zuzenak

- Profesionalen soldatak. Gure jakintzaz kanpo dauden ekintzak profesional kualifikatuak eskainiko dituzte, horretarako ordaindu behar zaie, beti ere Lanbide arteko soldata minimoa errespetatuz.)
- Tailerretako material kontsumigarria. Mota desberdinetako tailerrak antolatzean, mota askotako materialak erosi behar dira; paperak, kiroletako materiala, eskulanak egiteko materiala...)
- Partaideen eta familien garraio-kostuak. (Ekintzak leku batetik urrun antolatzen baditugu, garraioa behar da, eta hobe da guk eskaintzea bakoitzak lekura mugitu behar izatea baino.)
- Otordu eta hamaiketakoak. (Ekintza luzeak antolatzean, hala nola irteerak, ibilaldiak... Garrantzitsua da jatea, horregatik, guk eskaini nahi ditugu janari horiek. Hamaiketako osasuntsuak izango dira, eta guk prestatuko ditugu bertako elikagaiak kontsumituz.

Zeharkako kostuak

- Instalazioen alokairua. Ekintzak leku batean egin behar dira, horretarako alokatu behar ditugu behar dugun denbora)
- Coworking-a. Lan egiteko, batez ere hasieran Coworking batean batuko gara eta hori ordaindu behar da.
- Soldatak. Langileen soldata eta gizarte seguratzako aseguruak.
- Aseguruak eta betebeharrak legalak. Ekintzak antolatzean aseguru bat kontratatu behar da partehartzaile eta profesionalentzako.
- Bulego materialak eta ekipamendua. Kontratuak sinatzeko papera, lan egiteko ordenagailuak, liburuak, formakuntza digitalak...



ITURRIAK:

- Microsoft Copilot. (2026). Logotipo generado por inteligencia artificial para “Erratzu S.Coop.” [Imagen generada por IA].